

DONOSTIAKO AUTOBUS GELTOKIAREN ARAUDIA

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2009/01/30/e0900728.htm>

TESTU BATERATUA

OHARRA: Dokumentuak informazio izaera du eta EZ du balio juridikorik

1. KAPITULUA

ARAUBIDE OROKORRA

1. artikulua. Udal zerbitzu publikoa.

Autobus geltokia udal zerbitzu publikoa da, eta zerbitzu hauek zentralizatzea du xede: Erabilera orokorreko bidaiari garraioko linea erregular iraunkorretako autobusak abiatzeko, iristeko eta Donostian geldituta iragaiteko zerbitzuak; bai eta horiek eta bidaiariak garraiatzeko bestelako zerbitzu publikoak elkarri lotzeko zerbitzuak ere.

Geltokiak, legez dagozkion berariazko instalazio eta zerbitzu guztiak izango ditu.

2. artikulua. Aparkaleku publikoa.

Geltokiak aparkaleku publiko **bat ere** izango du. Aparkaleku horrek, era berean, zerbitzu egingo die trenbide geltokiari eta –oro har– herritar guztiei.

* 2010eko abenduaren 27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 2. artikulua izenburutik eta edukinetik "rotazio" hitza desagertzen da.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2011/04/20/e1104652.htm>

3. artikulua. Nahitaez erabili beharra.

Geltokia erabili beharko dute, nahitaez, hirirako hiriarteko zerbitzuak egiten dituzten eta Udalak zehazten dituen ibilgailu guztiek. Horretan, bete egin beharko da Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko Legeko (16/1987 Legea, 1987ko uztailaren 30ekoa) 131.2 artikuluan eta lege horren araudiko 75. artikuluan xedatutakoa. Hala ere, maiztasun handia dutelako geltokia itotzea eragin dezaketen aldiriko edo hiri inguruko zerbitzuak –edo hiri inguruko zerbitzutzat jo daitezkeenak– geltokia nahitaez erabili behar horretatik salbuets daitezke. Horretarako, ibilgailu salbuetsi horiek gelditzeko beste toki batzuk baimenduko ditu Udalak.

Salbuespen gisa, geltokira iritsi aurretik beren ibilbidean bidaiari ugariko guneetatik —konparazio batera, osasun laguntzako zentroetatik, ikastetxeetatik, geraleku intermodaletatik eta antzekoetatik — igarotzen diren zerbitzuei dagokienez, Udalak baimena eman diezaieke adierazitako tokian geldialdia egin dezaten, erabiltzaileen erosotasunerako. Hala ere, hori gertatzen denean, geltokiko zerbitzuak erabiltzearen tarifak ordaindu beharko dira, berdin–berdin.

Alde horretatik, Udalak ebazpen bat atera eta zerbitzu zerranda bat egingo du, salbuetsita izango direnak nahiz bidaiariak hiriko beste puntu batzuetan ere uzteko aukera izango dutenak jasoko dituenak.

4. artikulua. Kudeatzeko modua.

Lizitazio publikoaren bidez esleitzen den zerbitzu publikoa kudeatzeko administrazio emakidaren bitartez gauzatuko da geltokiaren ustiapena.

5. artikulua. Arautzea.

Zerbitzuaren araubide juridikoa araudi honetan dago zehaztuta. Araudiak, izan ere, administrazio eskumenak esleitzen ditu, administratuentzako prestazioek duten irismena zehazten du, eta prestazioari dagozkion alderdi juridiko, ekonomiko eta administratiboak arautzen ditu.

Araubide juridiko hori barne araudiak osatuko du. Barne araudia emakida duen enpresak proposatuko du, eta Udalaren onarpena beharko du.

Aplikagarri izango dira, orobat, garraio arloko eskumenak dituzten Administrazioek onartutako arauak, unean–unean indarrean direnak.

6. artikulua. Tarifak.

Geltokiko zerbitzuak egitearen ordainetan, Udalak une bakoitzean zehazten dituen tarifa aplikagarriak kobratuko dira.

7. artikulua. Erabiltzaileei eman beharreko tratua.

Instalazioko langileek, eta erabiltzaile diren enpresatako langileek, betiere, tratu egokia emango diete erabiltzaileei, eta behar bezala erantzungo diete haiek egindako laguntza eta informazio eskaerei.

8. artikulua. Hizkuntzako betebeharrak.

Geltokia eta geltokian egindako zerbitzuak ustiatzean, informazioari eta arretari dagokienez, unean–unean Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza koofizialtasuneko araubidean indarrean diren hizkuntza betekizunak beteko dira.

9. artikulua. Erreklamazioak.

Erabiltzaileek idatziz egin ahalko dituzte erreklamazioak, geltokiko instalazioetan eskuragarri izango duten liburu ofizialean. Era berean, zerbitzua hobetzearen egoki deritzeten iradokizunak egin ahalko dituzte.

10. artikulua. Informazio orokorra.

Informazio panel batzuk eta geltokiaren web orrian sartzeko puntu batzuk ere izango dira geltokian, autobusen zain egoteko tokietan. Brailen ere izango da informazioa.

Era berean, megafonia zerbitzua ere izango da geltokian, megafoniatik esaten dena erabiltzaileentzako toki guztietan entzuteko modua emango duena.

2. KAPITULUA

GELTOKIAREN USTIAPENA

11. artikulua. Ustiapen eremu gehigarria.

Baldin geltokiaren ahalmenak hala ahalbidetzen badu, geltokia beste zerbitzu batzuetarako erabili ahalko da (dela zerbitzu erregularretarako, dela eskatu ahalako zerbitzuetarako). Hala ere, Udalak alde aurretik baimena eman beharko du, adierazitako berariazko kasuetan, eta lehentasun ordena honetan:

1. Araudi honek geltokia erabiltzera behartzen dituen emakidetan –bidaiariak errepidez garraiatzeko zerbitzu publiko erregularren emakidetan– espedizio kopuruaren gehikuntza gisa baimentzen direnak.

2. Araudi honen indarraldia hasi eta gero esleitzen diren emakida berrietako zerbitzuak.

3. Hori eskatzen duten garraio zerbitzu erregularrak, geltokian sartzetik salbuetsita dauden zerbitzu erregularren artetik.

4. Bidaiarien eskatu ahalako garraio zerbitzuak, erabilera bereziko garraio erregularreko edo aldi baterako garraio erregularreko baimena dutenak.

5. Eskatu ahalako edo turismoko garraio publikorako eta garraio pribaturako baimenen babesean noizean behin gauzatzen diren zerbitzuak. Bi kasuetan, dagokion organoaren alde aurreko baimena behar da.

12. artikulua. Zirkulazioa eta zerbitzuak ustiatu eta kudeatzea.

Barne araudian ezarriko dira autobusen eta bidaiarien zirkulazioa eta egiten diren zerbitzuak ustiatu eta kudeatzeko baldintza zehatzak. Araudi hori emakida duen enpresak proposatuko du, eta Udalaren onarpena beharko du. Barne araudian jasoko dira, beharrezko jotzen diren bestelako baldintzez gainera, ondorengo hauei dagozkien baldintzak:

- Autobusak geltokira sartzea.
- Nasen erabilera.
- Nasak erabiltzeko eta bidaiariak hartzeko eta uzteko denborak.
- Autobusak geltokitik irtetea.
- Txartelak egitea.
- Sarbide publikoko edo mugatuko eremuak eta instalazioak.
- Geltokiaren web orria egitea
- Zerbitzuak erabiltzea (erabiltzaileen segurtasunerako eta arretarako zerbitzuak, komunak, kafetegia eta kontsigna, **baldin bada**).

* 2010eko abenduaren 27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 12. artikulua edukia aldatzen da lodiz markatutakoaren arabera.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2011/04/20/e1104652.htm>

13. artikulua.

Garraio enpresek, beren jarduera gauzatzean, dagozkien legezko betebeharrak bete beharko dituzte betiere.

14. artikulua. Garaiz iristea.

Enpresek beren ibilgailuen etorrera eta irteera ordutegiak ahalik eta zehaztasun handienaz beteko dituzte. Dena dela, aurreikusten diren zerbitzu atzerapenak, istripuengatik, matxurengatik edo bestelako kausengatik atzerapenik gertatuz gero, behar bezala jakinaraziko dituzte bai geltokiko informazio pantailetan eta baita web orrian ere.

15. artikulua. informazioa.

Enpresek erabiltzaileei garaiz jakinaraziko dizkiete zerbitzuak eta ordutegiak, bai eta zerbitzuetan nahiz ordutegietan gertaturiko gorabeherak ere.

Informazio hori panelen eta megafoniaren bidez zabalduko da, eta baita –ahal denean– geltokiaren web orriaren bidez ere.

16. artikulua. Garraioen emakidadun diren enpresekiko komunikazioa.

Geltokiko erakunde ustiatzaileak eta garraio lineen emakida duten enpresek elkarri bidaltzen dizkieten barne araubideko idazki, eskutitz edo ohar guztiak (edo entregatu direla egiaztatu nahi denean) bi aletan idatziko dira. Hartzaileak kopia zigilatu edo sinatu beharko du, eta hartu duen eguna idatziz adierazi beharko du, behar bezala jasota gera dadin. Idatzi, eskutitz edo ohar horiek ahal dela elektronikoki egingo dira.

17. artikulua. Garraio enpresen erantzukizuna.

Garraio zerbitzuen emakidadun diren enpresak izango dira geltoki honen barruan beren ibilgailuek eragiten dituzten istripuen erantzule, ondorio guztietarako. Orobat, geltokiko gauzei eta pertsoneri nahiz geltokikoak ez direnei eragindako kalteen erantzule ere izango dira, salbu eta geltokiko langileei egoztekoak diren kausen ondorioz gertaturiko istripuak direnean.

Halaber, ondorio guztietarako, enpresa horiek izango dute beren jardueran egiten duten lege hauste ororen gaineko erantzukizuna, nahiz eta lege haustea geltokiko eremu fisikoan gertatu.

3. KAPITULUA

APARKALEKUAREN USTIAPENA

18. artikulua. Aparkalekuaren erabilera.

Aparkalekuak erabilera publikoko **tokiak (txandan erabiltzeko) eta erresebatuak izango ditu.**

* 2010eko abenduaren 27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 18. artikulua edukia aldatzen da lodiz markatutakoaren arabera.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2011/04/20/e1104652.htm>

19. artikulua. Erabilera.

Txandakitze araubidekoak diren erabilera publikoko aparkalekuak iriste ordenaren arabera erabili ahalko dituzte ibilgailuek. Ezingo da erresebarik egin, eta ez da inolako lehentasunik emango. Halaber, ez da ibilgailurik atzera botako toki hutsak dauden bitartean eta ezarritako neurrien mugak betetzen dituzten heinean, salbu eta ibilgailu horiek onartzeak gainerako erabiltzaileei arriskua edo eragozpenak badakarzkie.

Erresebatutako aparkalekuak enpresa esleipendunak emango ditu ezeren mugarik gabe.

Aparkaleku bakoitza titularrak berak erabili behar du hartarako baimena duen ibilgailuarekin, eta inolaz ere ez dago beste bati uzterik edo errentan ematerik.

Aparkalekuak erabiltzeko emakidaren epeak ez dauka Autobus Geltokiaren zerbitzu publikoaren emakidak izango duen epea baino handiagoa izaterik inolaz ere.

* 2010eko abenduaren 27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 19. artikulua edukia aldatzen da lodiz markatutakoaren arabera.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2011/04/20/e1104652.htm>

20. artikulua. Abonamenduak.

Emakida duen enpresak ez du inolako abonamendurik hitzartzerik izango erabiltzaileekin, ez egunekorik, ez gauekorik, ez astekorik, ez hilekorik, ez eta urtekorik ere, salbu Udalari eskatzen badio eta berariazko baimena lortzen badu.

Udalaren baimentze erabakiak ezarriko ditu gehieneko toki kopurua eta abonamenduen baldintzak, eta baimen hori eraginik gabe utzi ahalko du edonoiz, interes publikoko arrazoiak direla eta.

21. artikulua. Tarifak.

Udalak zehaztuko ditu **txandan erabiltzeko aparkalekuen** tarifak. Tarifa horiek aplikatzean, une horretan indarrean den araudia bete beharko da.

Erresebatutako aparkalekuak enpresa esleipendunak emango ditu berak jartzen duen prezioan. Erabiltzen uzteko kontratua egin baino lehen, kontratuaren zirriborroa bidali behar dio enpresa esleipendunak Udalari, Udalak onar dezan.

* 2010eko abenduaren 27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 21. artikulua edukia aldatzen da lodiz markatutakoaren arabera.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2011/04/20/e1104652.htm>

22. artikulua. Langileak eta bitartekoak.

Aparkalekuko zerbitzu publikoak izango ditu beharrezko langileak, bitarteko mekanikoak eta –behar izanez gero– baliabide informatikoak, zerbitzua segurtasun eta eraginkortasun baldintza egokietan egin dadin.

Aparkalekurako sarreran edo sarreretan, informazio sistema bat izango da. Aparkalekua beteta dagoen ala tokirik dagoen adieraziko du, uneoro. Tokia dagoela adierazten duenean, zenbat leku huts dauden adierazi beharko du. Era berean, hiriko beste aparkaleku batzuetan zenbat toki den libre ere adieraziko du.

Txandakatzekoa den leku bakoitzak leku hutsei antzemateko sistema izango du, eta libre (hartu gabe) dauden tokiak adierazteko mekanismoa izango du.

Geltokiak txirrindentzako aparkalekuak izango ditu, behar bezala adierazita egongo direnak.

23. artikulua. Txandakako aparkalekuak erabiltzen dituzten pertsonen eskubideak eta betebeharrak.

1. Txandakatzekoak diren tokietako erabiltzaileek eskubide hauek izango dituzte:

- a) Ibilgailua aparkatzeko leku bat izateko eskubidea.
- b) Sartu den eguna eta ordua eta ibilgailuaren identifikazioa adierazten dituen ziurtagiria edo frogagiria jasotzeko eskubidea.
- c) Prezioak, ordutegiak eta aparkalekua erabiltzeko arauak, funtzionamendu arauak eta erreklamazio orriak erraz ikusteko moduan izateko eskubidea.
- d) Ibilgailua eman zen egoera berean atzera hartzeko eskubidea, aparkalekura sartu izanaren egiaztagiria baldin badu.
- e) Ibilgailua aparkalekuan den denboran zaintze eta jagote zerbitzuaz gozatzeko eskubidea.
- f) Betebeharrak guztiz edo zati batean ez bete ez direlako jabeari edo ibilgailuaren erabiltzaileari eragiten zaizkion kalteengatik erantzungo zaion eskubidea.

2. Txandakatzekoak diren lekuen erabiltzaileek betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Ibilgailua atera aurretik, zehaztutako prezioa ordaintzea.
- b) Egiaztagiria edo frogagiria erakustea, edo, agiri hori galduz gero, ibilgailuaren gaineko eskubidea egiaztatzea, ibilgailua aparkalekutik ateratzeko.
- c) Zaindu beharreko objektuak zein diren adieraztea, eta zehazten zaion tokian uztea, zehazten zaizkion neurriak beteta; edo, hala badagokio, ibilgailua zehazten zaion tokian aparkatzea, zehazten zaizkion neurriak beteta.
- d) Arauei eta aparkalekuaren arduradunaren jarraibideei jarraitzea, aparkalekuaren erabileraz eta segurtasunaz den bezainbatean.
- e) Aparkaleku barruan ibilgailua trebetasun faltaz gidatzeagatik edo arauak ez betetzeagatik eragiten dituzten kalteengatik erantzutea aparkalekuaren emakidadunaren aurrean, Udalaren aurrean eta gainerako erabiltzaileen aurrean.

23 (bis) artikulua. Erreserbatutako aparkalekuak erabiltzen dituzten pertsonen eskubideak eta betebeharrak.

1. Hauek dira erreserbatutako aparkalekuen titularrek izango dituzten eskubideak:

- a) Erabilera eskubidea den epe guztian erabiltzea aparkalekua, norberak, eta, betiere, hartarako baimendutako ibilgailuarekin.
- b) Aparkalekuaren elementu komunak eta instalazioak erabiltzea, kontzesionarioak finkatutako baldintzetan.
- c) Aparkalekuari aplikatzen zaion arautegia eta dokumentazioa eskura edukitzea.

d) Esleipendunari eta Udalari kexak aurkeztea, bere eskubidea errespeta dadin, zerbitzuaren ohiko jardueran dauden nahasketak amai daitezen edo kontzesioaren titularrarekin dituen gatazketan esku har dezaten.

e) Kontzesioaren titularren edo Udalaren babesa eskatzea plaza erabiltzeko orduan. Besteak beste, bere tokia normal erabiltzea galarazten dion ibilgailua edo beste zerbait segituan kentzea ere izan daiteke babes hori.

Alde horretatik, erabiltzaileak salatu eta kontzesioaren titularrak edo kudeaketa bulegoak salaketaren izapideak eginez gero, Udaltzaingoak eskumena izango du, berariaz, ez dagokion aparkalekuan edo aparkalekuaren titularrak bere tokia erabiltzea galarazteko edo oztopotzeko moduan den ibilgailua handik hartu, kendu eta Udalaren Biltegira eramateko.

f) Kontzesioaren titularrak informazioa ematea aparkalekuko funtzionamendu-aldaketei buruz, eta beharrezkotzat jotzen diren eta bere eskubideari eragiten dioten obren berri ematea.

2. Hauek dira erreserbatutako aparkalekuen titularrek izango dituzten betebeharrak:

a) Titularrak berak erabiltzea, baimendutako ibilgailuaz, izendatutako aparkalekua, beste inori utzi edo errentan eman gabe.

b) Ibilgailua esleitutako plazan aparkatzea, lapurreten kontrako segurtasun-neurri ohikoak hartuz (ateak eta leihoak ixtea eta ezer agerian ez uztea).

c) Aparkalekuaren barruan argi laburrak piztuta eramatea.

d) Aparkalekuaren barruko seinale bertikalak eta horizontalak errespetatzea, bai eta beste edozein zirkulazio-arau ere.

e) Ibilgailu- edo bizileku-aldaketen berri ematea aparkalekuko administratzaileari edo kudeaketa-bulegoari.

f) Aparkalekuaren prezioa eta mantentze-gastuen kuota ordaintzea, kontratuan hala jartzen badu, adierazitako epeetan.

g) Emandako eskubidea ez kargatzea, hipotekatzea edo edozein murrizketen mende jartzea.

h) Eskubidea amaitzean aparkalekua hustea.

i) Udalak edo esleipena duen enpresak aparkatzeko baimena duten ibilgailuentzat erabakitako eta emandako identifikazio-ikurrak erabiltzea.

j) Kontzesionarioari uztea plazan erabilera noiznahi ikuskatzen eta zuzenean kontrolatzen, eta kontzesionarioak edo Udalak bere jardueren barruan plazari buruz eskatutako dokumentazio guztia ematea.

l) Instalazioak behar bezala erabiltzea, eta hura mantentzen eta garbi edukitzen laguntzea kontzesionarioari.

l) Obrak doazenean edo interes publiko behar bat dagoenean, udalak hala eskatuz gero aparkalekua hustea.

* 2010eko abenduaren 27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 23.BIS artikulua gehitzen da.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2011/04/20/e1104652.htm>

4. KAPITULUA

ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

24. artikulua. Erabiltzaile diren pertsona partikularren eskubideak.

Autobus geltokiko instalazioen erabiltzaileek, oro har, eskubide hauek dituzte:

— Instalazioak eta egiten diren zerbitzuak erabiltzeko eskubidea, berariazko erabilera arauen eta erabiltzailetzat gaitzen duen txartelaren arabera.

— Instalazioetan zerbitzu egiten duten langileengandik eta gainerako erabiltzaileengandik errespetuzko eta begirunezko tratua jasotzeko eskubidea.

— Euskal Autonomia Erkidegoan ofiziala den edozein hizkuntzatan komunikatzeko eta zerbitzua jasotzeko eskubidea.

— Bulegoetan, instalazioetan edo Udalaren nahiz geltokiaren webean, instalazioak erabiltzeko eta instalazioetan egiten diren zerbitzuak erabiltzeko baldintzei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea. Baldintza horiei buruz, eskatzen dituzten dokumentuak eman beharko zaizkie.

— Kexak, iradokizunak eta erreklamazioak egiteko eskubidea. Kudeaketaren arduradunak erreklamazio orriak izan beharko ditu, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko Legean (6/2003 Legea, 2003ko abenduaren 22koa) eta lege hori garatzeko araudian ezarritakoari jarraituz.

— Geltokiko eta garraio enpresetako edozein langileri edonoiz identifikazioa eskatzeko eskubidea, erreklamazioak egiteko.

— Mugikortasun urriko erabiltzaileek eta hala behar duten elbarriek lehentasuna eta bana-banako arreta izateko eskubidea dute. Sartzeko eta irteteko prozesu osoan bertako langileek lagun diezaietela eskatu ahal izango dute.

— Indarrean dagoen legeriak, araudi honek nahiz barne araudiak onartutako beste edozein eskubide.

25. artikulua. Erabiltzaile diren pertsona partikularren betebeharrak.

Autobus geltokiaren erabiltzaileek, oro har, betebeharrak hauek dituzte:

— Instalazioak eta ekipamendua erabiltzean, araudi honetan nahiz barne araudian xedatutakoari eta instalazioetako langileek emandako erabilera oharrei jarraitzeko betebeharra. Betiere, bete egin behar da segurtasunari, zerbitzuari eta zerbitzuen gorabeherei buruzko karteletan eta iragarkietan adierazitakoa.

— Beharrezko denean, instalazioetara sartzeko gaitzen duen txartela aurkezteko betebeharra. Eta, eskatzen zaionean, NANA edo identifikatzeko beste agiri ofizialen bat erakusteko betebeharra.

— Instalazioetan, langileekin eta gainerako erabiltzaileekin behar bezala jokatzeko betebeharra.

— Indarrean dagoen legeriak, araudi honek nahiz barne araudiak ezarritako beste edozein betebeharrak.

26. artikulua. Garraio enpresen eskubideak eta betebeharrak.

Geltokia erabiltzen duten garraio enpresa emakidadunen eskubide eta betebeharrak, araudi honetan eta barne araudian daude ezarrita.

5. KAPITULUA

ZEHATZEKO ARAUBIDEA

27. artikulua. Ordena berrezartzeko neurriak.

Instalazioetako langileek neurriak hartu ahal izango dituzte, ordena eta zerbitzuaren funtzionamendua berrezartzeko. Gainera, bidezko diren zehapenak aplikatuko dira. Jokabide hauetakoren bat duten erabiltzaileak instalazioetatik kanporatu ahal izango dituzte:

— Araudi honetan instalazioen erabilerari buruz ezarritako arauen bat edozein eratan haustea. Halakoetan, unean bertan balioztatuko da egoera, eta kontuan hartuko dira xehetasun hauek: Hutsegitearen larritasuna, arau haustea zuzentzeko abisuei kasurik ez egitea, beste erabiltzaileei

kalte nabaria egitea, aurretik ere arau hauste hori egin duela jakitea, eta antzeko beste hainbat xehetasun.

— Sartzeko balio duen txartelik ez izatea, txartela nahitaezkoa denean.

— Gizarte bizikidetzaren eta higienearen kontrako ekintzak egitea, edo beste jokabide antisozial batzuk izatea; Gizabideari buruzko udal ordenantzan hala tipifikatuta dauden ekintzak eta jokabideak, besteak beste.

28. artikulua. Arau hausteak.

Arau hausteak honela sailkatzen dira: Oso larriak, larriak eta arinak.

29. artikulua. Arau hauste oso larriak.

Arau hauste oso larritzat jotzen dira hau dakartenak:

a) Instalazioetako langileei edo erabiltzaileei tratu txarra ematea, edo bizikidetzaren nabarmen nahastea, eta, halaxe, larriki, berehala eta zuzenean eragitea instalazioetako lasaitasunari. Instalazioen erabiltzaile adingabeei edo mugikortasun urrikoei tratu txarra ematen bazaie, edo indarkeria erabiltzen bada, oso larritzat hartuko dira beti.

b) Instalazioetan alarma faltsuak eragitea.

c) Instalazioak edo instalazioetako zerbitzuak erabiltzeko eskubidea duten beste erabiltzaile batzuei erabiltzen ez uztea. Betiere oso larritzat jotzen da, baldin adingabeei edo mugikortasun urriko gizabanakoei eragiten badie, edo indarkeria erabiltzen bada.

d) Beste erabiltzaileei beren legezko eskubideak erabiltzen ez uztea; direla araudi honek ematen dizkien eskubideak, edo direla aplikatzekoa den beste edozein arau juridikok ematen dizkien eskubideak.

e) Zerbitzu publikoari normal funtzionatzen ez uztea edo traba larri eta nabarmena jartzea.

f) Ekipamenduak, azpiegiturak, instalazioak eta elementu higigarri edo higiezinak larri edo nabarmen hondatzen dituzten ekintzak egitea. Oso larritzat hartuko dira, konpontzearen kostua 1.500,1 euro baino gehiago denean.

g) Larrialdi eta ebakuazio planerako beharrezko elementu hauek lapurtzea, txikitzea edo hondatzea: Alarmak, fitxak, txalekoak, su itzalgailu eta kartelak.

h) Segurtasun araudia ez betetzea.

i) Zigor Kodeko 368. artikuluan zehazturiko gaiak (droga toxikoak, estupefazianteak edo gai psikotropikoak) kontsumitzea edo saltzea, instalazioetan oro har.

j) Inoren ondasunak legez kontra bereganatzen harrapatzea.

k) Jazarpen fisiko, moral edo sexuareko jarrerak hartzea.

l) Arau hauste larritzat jotako jokabideak errepikatzea.

30. artikulua. Arau hauste larriak.

Arau hauste larritzat jotzen dira hau dakartenak:

a) Instalazioetako langileei edo erabiltzaileei tratu txarra ematea, edo bizikidetzaren nabarmen nahastea, baldin ez bada betetzen oso larritzat jotzeko baldintzarik.

b) Instalazioak edo zerbitzuak erabiltzeko eskubidea duten beste erabiltzaile batzuei, erabiltzen ez uztea, oso larritzat jotzen ez denean.

c) Ekipamenduak, azpiegiturak, instalazioak eta elementu higigarri edo higiezinak hondatzea, konpontzeko kostua 1.500 eta 600 euro artekoa denean.

d) Instalazioak erabiltzea baimentzen duen agiririk gabe erabiltzea, behin eta berriz.

e) Zerbitzuak erabiltzeagatik ez ordaintzea.

f) Araudi honek edo barne araudiak debekatutako animaliak edo bestelako elementuak sartzea, salbu eta zerbaiten zerbitzua emateko erabiltzen diren zakurrak edo konpainia egiteko erabiltzen diren zakurrak eta katuak, behar bezala lotuta ibiliz gero oinezkoentzako guneetan.

g) Instalazioko langileek emandako jarraibideei kasu ez egitea.

h) Garraio enpresek beste edozein eratan araudi hau edo barne araudia ez betetzea.

i) Arau hauste oso larrietako ekintza berak egitea, baldin hurrengo artikuluko irizpideak aplikatuta arau hauste larritzat jotzen badira.

31. artikulua. Arau hauste arinak.

Arau hauste arintzat jotzen dira hauek:

a) Instalazioak erabiltzea baimentzen duen agiririk gabe.

b) Erretzaileentzako guneetatik kanpora erretzea.

c) Arau hauste larrietako ekintza berak egitea, baldin hurrengo artikuluko irizpideak aplikatuta arau hauste arintzat jotzen badira.

d) Ekintza arriskutsuak egitea nahiz ekipamenduak, azpiegiturak, instalazioak eta elementu higigarri edo higiezinak hondatzea, konpontzeko kostua 600 eta 1 euro artekoa denean.

e) Higienearen kontrako ekintzak egitea edo beste jokabide antisozial batzuk izatea, larri edo oso larritzat jotzeko modukoak ez badira intentsitatea, intentzioa, utzikeria maila, pertsonen osasunarentzako eta segurtasunarentzako arriskua edo behin baino gehiagotan egitea kontuan hartuta.

32. artikulua. Larritasun maila erabakitzeko irizpideak.

Zehazki, arau hausteak oso larri, larri edota arin gisa sailkatuko dira, irizpide hauek aplikatuz:

a) Lasaitasunari edo beste gizabanako edo jarduera batzuen eskubideen gauzatze baketsuari eragindako kaltearen zenbaterainokoa.

b) Osasungarritasun edo apaingarri publikoei eragindako kaltearen zenbaterainokoa.

c) Zerbitzua edo gune publikoa erabiltzeko eskubidea duten gizabanakoei, zerbitzu edo gune horren erabileran eragindako kaltearen zenbaterainokoa.

d) Zerbitzu publikoaren funtzionamendu normalari eragindako kaltearen zenbaterainokoa.

e) Ekipamenduei, azpiegiturei, instalazioei edo zerbitzuko elementuei eragindako kaltearen zenbaterainokoa.

f) Nahita egin izana, arduragabekeria maila, gizabanakoen osasun eta segurtasunerako arriskua, eta berriro egin izana.

33. artikulua. Zehapenak.

Arau hauste arinei, zehapen hauek aplikatuko zaizkie, zigor ahalmenari buruzko arauekin bat etorrira:

— 50 eurotik 750 eurora bitarteko isuna.

Arau hauste larriei, zehapen hauek aplikatuko zaizkie, zigor ahalmenari buruzko arauekin bat etorrira:

— 750,1 eurotik 1.000 eurora bitarteko isuna.

Arau hauste oso larriei, zehapen hauek aplikatuko zaizkie, zigor ahalmenari buruzko arauekin bat etorrira:

— 1.000,1 eurotik 3.000 eurora bitarteko isuna.

34. artikulua. Kalteak konpontzea.

Artikulu honetan tipifikatutako egitateengatik jartzen diren zehapenez gainera, arau hauslearen betebeharra izango da ondasunak lehengo egoeran utzi eta berritzea, eta eragindako kalte eta galeren kalte ordainak ematea. Kalte ordainen zenbatekoa, zehapen espedientearen ebazpenean finkatuko da.

35. artikulua. Zehapen espedienteen izapideak.

Emakida duen enpresak gertatutakoaren txostena helarazi beharko dio organo eskudunari, dagokion zehapen espedientea hasi eta ebazteko.

Zehapen espedienteak eta zuhurtasunezko neurriak, Administrazio publikoen zehapen ahalmenari buruzko araei jarraituz izapidetuko dira.